o	Argitalpen ofiziala – maila zehaztugabea

29 – Biltzarrak

Zenbaki bakarreko kodea da eta dokumentua biltzarren aktek, txostenek, laburpenek, etab. osatzen duten adierazten du.

0	<i>Ez da biltzarra</i> (lehenetsita)
1	<i>Biltzarra da</i>

30 – Omenaldiak

Zenbaki bakarreko kodea da eta idazlana omenaldi bat den adierazten du. Omenaldi bat zorientze- edo oroitzapen-argitalpen bat da, oro har saiakera, eskaintza edo ekarpen biografiko, bibliografiko edo zientifikoen bilduma gisa aurkezten dena. Sarritan, pertsona, erakunde edo gizarte baten omenez argitaratutako ikerketa baten emaitzak jasotzen ditu, normalean urteurren baten ondorioz.

0	<i>Ez da omenaldia</i> (lehenetsita)
1	<i>Omenaldia da</i>

31 – Aurkibidea

Zenbaki bakarreko karakterea da eta dokumentuak aurkibide esanguratsua duen ala ez adierazten du.

0	<i>Ez du aurkibiderik</i> (lehenetsita)
1	<i>Aurkibidea du</i>

33 – Literatura-forma

Karaktere bakarreko kodea da eta dokumentuaren literatura-forma adierazten du.

0	<i>Ez da fikzioa.</i> (Zehaztu gabe). Dokumentua FIKZIOA EZ DELA eta literatura-forman gehiago sakondu nahi ez dela adierazten du.
1	<i>Fikzioa da.</i> (Zehaztu gabe). Dokumentua FIKZIOA DELA eta literatura-forman gehiago sakondu nahi ez dela adierazten du (lehenetsita).
d	<i>Drama</i>
e	<i>Saiakera</i>
f	<i>Eleberria</i>
h	<i>Umorea, satira, eta abar</i>
i	<i>Gutunak</i>
j	<i>Kontakizunak</i>

m	Forma mistoa. Dokumentuak hainbat literatura-forma barne hartzen dituela adierazten du (esaterako, poesia eta kontakizunak).
p	Poesia
s	Hitzaldiak
u	Ezezaguna

34 – Biografia

Letra bakarreko kode alfabetikoa da eta dokumentuak material biografikoa duen adierazten du.

#	Ez du material biografikorik
a	Autobiografia
b	Biografia indibiduala
c	Talde-biografia
d	Informazio biografikoa du

35-37 - Hizkuntza


Hiru karaktereko kode alfabetikoa da eta dokumentuaren hizkuntza adierazten du. Kodearen iturria *MARC Code list languages* da. Kodea aukeratzeko orduan, dokumentuan nagusi den hizkuntza hartzen da kontuan.

Posizio horietatik hartzen da online katalogoan "HIZK" bilaketa egiteko informazioa.

Hainbat hizkuntzatan dauden idazlanak:

- Hizkuntza bi edo gehiagoko idazlanetan (gehienez ere sei) hizkuntza nagusiaren kodea jarriko da, eta nagusitzen denik ez badago, lehenengoarena.
- “mul” kodea soilik sei hizkuntzatatik gorako idazlanetarako erabiliko da.

Gainera, **T041** (*Hizkuntza-kodea*) etiketan eta **T546** (*Hizkuntzari buruzko oharra*) hizkuntzari buruzko oharrean jarriko dira.

F5 funtzio-teklaren edo  laguntza-ikonoaren bidez, hizkuntzen kodeak kontsultatu eta atzeman ditzakegu. Sistemak lehenetsita dakar gaztelaniari dagokion “spa” kodea.

38 – Aldatutako erregistroa

Karaktere bakarreko kodea da eta bibliografia-erregistro batean jasotako zeinahi daturen ondorioz katalogatuta dagoen dokumentuko informazioan aldaketarik eragin den adierazten du. Hutsik utziko da (#).

39 – Katalogazio-iturria

Letra bakarreko kodea da, eta erregistroaren jatorrizko katalogazioaren iturria adierazten du. Geure kasuan, katalogazio partekatuko programa dugunez, **BETI c kodea** idatziko dugu.

Katalogazio-iturria **T040** eremuaren **\$a** azpieremuan ere zehaztuko da, horretarako, Liburutegi Zerbitzuak ezarritako kodeak erabiliz (ikus **T040** eremua).

c **Katalogazio kooperatiboko programa.** Erregistroaren sortzailea katalogazio kooperatiboko programa bateko kidea da. (Lehenetsita)

Adibidea:

Katalogazio-iturria: **c**
T040 ## \$aA0039 \$bbaq \$cA0039
Gasteizko liburutegiek katalogatutako erregistroa

T008 Luzera finkoko informazio-kodeak Liburuak			
Sarrera-eguna	150216	Data-mota/argitalpenaren egoera	s
Lehenengo data		Bigarren data	
Idazlana argitaratu, ekoitzi edo burutu den lekua	sp	Ilustrazioak	
Jasotzailea		Dokumentuaren forma	
Edukiaren izaera		Argitalpenaren forma	
Biltzarrak	0	Omenaldiak	0
Aurkibidea	0	Literatura-forma	0
Biografia		Hizkuntza	spa
Aldatutako erregistroa		Katalogazio iturria	c

T008 eremuarekin lotutako bilaketak:

T008 Luzera finkoko informazio-kodeak Liburuak			
Sarrera-eguna	150216	Data-mota/argitalpenaren egoera	s
Lehenengo data		Bigarren data	
Idazlana argitaratu, ekoitzi edo burutu den lekua	sp	Ilustrazioak	
Jasotzailea		Dokumentuaren forma	
Edukiaren izaera		Argitalpenaren forma	
Biltzarrak	0	Omenaldiak	0
Aurkibidea	0	Literatura-forma	0
Biografia		Hizkuntza	spa
Aldatutako erregistroa		Katalogazio iturria	c

Diagrama: HERRIALDEA (Hiriaren izena) -> Idazlana argitaratu, ekoitzi edo burutu den lekua (sp) -> Sarrera-eguna (150216). HIZK. (Hizkuntza) -> Hizkuntza (spa).

T017 LEGE GORDAILUAREN ZENBAKIA (E)

Agentzia bakoitzak esleitzen duen lege-gordailuaren zenbakia jasotzen du, eta nahitaz bete beharko da lege-gordailuaren eta euskal bibliografiaren kasuan.

Adierazleak

Lehenengoa	# Zehaztugabea
Bigarrena	# Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia 8 Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen

Azpieremu-kodeak

\$a	Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia (E)
\$z	Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia ezeztatua/baliogabea (E)

Funtsezko elementua da eta behar hainbat aldiz bete behar da.

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

Gaztelania	Euskara
D.L.	L.G.

\$a – Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia

Copyright edo lege-gordailuaren erregistro-zenbakia.

\$a – Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia ezeztatua/baliogabea

Honela jarri behar da:

- Probintzia adierazten duten letrak maiuskulaz jarriko dira, eta ez dira puntuen edo zuriuneen bidez bereiziko.
- Ez da punturik erabiliko zenbakien eta urteen milako zifretan.
- Zenbakien bigarren multzoa, urteari dagokiona, lau digitukoa izango da beti, nahiz eta dokumentuan bi digituz inprimatuta egon. Uniformetasun horren helburua da informazio hori katalogo automatizatu batean zuzen eskuratu ahal izatea.
- Zenbakiaren eta urtearen artean gidoi bat jarriko dugu.

- Inprimatuta egon daitezkeen zenbakiaren ezkerreko zeroak ez dira kontuan hartuko (adibidez, dokumentuan VI 0124-1995 ageri bada, VI 124-1995 jasoko da).
- Batzuetan, dokumentuan ageri den zenbakia, letra edota lege-gordailuaren urtea okerrekoak izatea gerta daiteke (adibidez, SS 2548-1998 ordez D 2548-1998). Kasu horietan, **\$z** azpierzemua erabiliko dugu okerra denarentzat, eta zuzenerako, **\$a**. **EZINGO DA (OKERRA) EDO (ERRÓNEO) IDATZI.**

Adibidea:

T017 ## \$aSS 1356-1996 \$zD 1356-1996

- Lege-gordailua argitalpenaren liburuki jakin bati dagokionean, iturrian datorren bezalaxe idatziko da datua (zenbaki arabiarrek edo erromatarrek). Laburtzapen normalizatuak erabiliko dira, minuskulaz, eta zuriunerik gabe puntuazioaren ostean.
- Argitalpen batean zenbaki erromatarrez adierazten bada urtea, zenbakiok arabiarrek bihurtuko ditugu, jarraian ageri den elkarrekikotasun-taula kontuan hartuta, eta okerra bezala erantsiko dugu:

I	1958
II	1959
III	1960
IV	...

Adibidea:

T017 ## \$aBI 528-2001 (t.1)
T017 ## \$aBI 279-2001 (l.t.)
T017 ## \$aSS 729-2002 (v.3)
T017 ## \$aSS 988-2002 (3.libk.)
T017 ## \$aVI 447-2003 (vol.I)
T017 ## \$aVI 591-2003 (l.libk.)

Adibidea:

T017 ## \$aBI 528-2001
Ez: BI 0528-2001
T017 ## \$aMU 6597-1975
Ez: MU 6597-75
T017 ## \$aSS 2548-1998 \$zD 2548-1998
T017 ## \$aVI 152-2005 \$zVI 152-XLVIII

T020 LIBURUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA (ISBN) (E)

Eremu horrek *Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua* (ISBN) jasotzen du. Dokumentuan ISBN zenbakia agertzen ez bada edo zenbaketa okerra bada, katalogatzailea zenbaki zuzena aurkitzen saiatuko da.

Adierazleak

Lehenengoa # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremu-kodeak

\$a *Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (EE)*

\$z *ISBN ezeztatua edo baliogabea (E)*

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzeari, hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio-hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

Gaztelania

Euskara

ISBN

ISBN

\$a – Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua

ISBN balioduna jasotzen du, bai eta edozein informazio gehigarri ere, parentesi artean.

\$z – ISBN ezeztatua edo baliogabea

ISBN ezeztatua edo baliogabea jasotzen du, bai eta edozein informazio gehigarri ere, parentesi artean.

Honela jarri behar da:

- Zuzenean zenbakia transkribatzen da, digitu-taldeak banatzen dituzten gidoiak errespetatuta.
- Hainbat liburuki dituzten idazlanen kasuan, liburuki bakoitzaren ISBNak transkribatuko dira; parentesien artean liburukia adieraziko da, **dokumentuan jaso bezala**, eta ostean, idazlan osoaren ISBNa. **Dokumentuan agertuko ez balitz, liburukiaren zenbakia zenbaki arabiarrez transkribatuko da.**

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
(o.c.) "obra completa" laburtzapena	(l.o.) "lan osoa" laburtzapena
(v.x)	(x.libk.)

- Argitaletxeen arabera ISBNak desberdinak badira, etiketa errepikatuko da, eta parentesien artean, bakoitza zer argitaletxeri dagokion adieraziko da.

ISBN zenbakia okerra bada, **\$z** azpierenua erabiliko da, eta **ezingo da idatzi (okerra) edo (erróneo)**. Gomendatzen dugu ISBN zuzena Espainian argitaratutako liburuen datu-basearen¹ webgunean aurkitzea, edota <http://www.gettextbooks.com/> webgunean; azken horrek, ISBNa ezagutzen badu, bertara eramango zaitu.

- Programak ISBN 10 eta ISBN 13 onartzen ditu, eta beraz, biak jaso ahalko dira, iturrian ageri badira.

Adibideak:

T020 ## \$a84-923837-0-4
T020 ## \$a978-84-586-9848-1 (v.1)
T020 ## \$a84-576-27121-3 (o.c.)
T020 ## \$a84-95589-62-1 (Alberdania)
T020 ## \$a84-7907-062-5 \$z84-7907-062-3
T020 ## \$a84-96783-70-4 (10.libk.)

1

http://www.mcu.es/webISBN/cargarLibroBusquedaAvanzada.do?cache=init&prev_layout=busquedaisbn&layout=busquedaisbn&language=es

T024 BESTE IDENTIFIKATZAILE NORMALIZATU BATZUK (E)

Beste eremu batean idatzi ezin daitekeen zenbaki normalizatua edota dokumentuan argitaratutako kodea. Zenbaki normalizatu edota kodea lehendabiziko adierazleagatik edo \$2 azpieremuagatik identifikatzen da.

AOIZ (*Argitalpen Ofizialen Identifikazio Zenbakia*) sartzeko erabiliko dugu.

Adierazleak

Lehenengoa **7** \$2 azpieremuan zehaztutako iturria
8 Zehaztugabea

Bigarrena # Ez dago informaziorik

Azpieremu-kodeak

\$a *Zenbaki normalizatua edo kodea (EE)*

\$z *Zenbaki normalizatua edo kode ezeztatua/baliogabea (EE)*

\$2 *Zenbakiaren edo kodearen iturria (EE)*

\$a – Zenbaki normalizatua edo kodea

Adibidea:

T024 8# \$a306-93-002-7

\$2 – Zenbakiaren edo kodearen kodea

Soilik erabiltzen da lehendabiziko adierazlearen balioa 7 denean (\$2 azpieremuan zehaztutako iturria). Kodea “*Standard Identifier Source Codes*”-etik hartzen da.

Adibidea:

MARC bistaratzeari:

T024 7# \$a306-93-002-7 **\$2** Nipo

ISBD bistaratzeari:

NIPO: 306-93-002-7

Atxikitako bistaratzeari

Etiketa honek atxikitako bistaratzeari propioa du lehenetsita, **T040**aren **\$b** zuzen betetzen denean. Bistaratzeari lehen adierazlearen eta **\$2** azpieremuaren balioak zehazten du.

Castellano

NIPO:

Euskera

NIPO:

T035 SISTEMAREN KONTROL ZENBAKIA (E)

Jatorrizko sistemaren kontrol-zenbakia jasotzen du, katalogoen fusioaren ostean migratutako erregistroetarako.

Era beran, OCLC zenbakia jasotzen du, WorldCat-entzat beharrezkoa dena.

Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

Adibidea:

T035 ## \$a(OCOLC)864103543

```
..T035:  
  < ><a>(OCOLC)434808289  
..T035:  
  < ><a>B0600-439002
```

T040 KATALOGAZIO ITURRIA (EE)

Jatorrizko bibliografia-erregistroa sortu, MARC eduki-adierazleak esleitu eta erregistroa transkribatu edo aldatu zuen erakundearen izena edo MARC kodea.

Geure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak zentro bakoitzarentzat ezarritako kodeak erabiliko dira.

Adierazleak

Lehenengoa # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremu-kodeak

\$a *Jatorrizko katalogazio-zentroa (EE)*

\$b *Katalogazio-hizkuntza (EE)*

\$c *Zentro transkribatzailea (EE)*

\$d *Zentro aldatzailea (E)*

\$a, \$b eta \$c azpieremuak bete behar dira; bestela, programak gorritz markatuko ditu.

\$a – Jatorrizko katalogazio-zentroa

Liburutegi Zerbitzuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi bakoitzarentzat ezarritako kodeak dira. Guztiak *EIPSeko liburutegien datuak* dokumentuan kontsultatu daitezke.

\$b – Katalogazio-hizkuntza

Erregistroaren katalogazio-hizkuntzarentzako MARC kodea. Gure kasuan euskara (**baq**) edo gaztelania (**spa**) izango da.

Oso garrantzitsua da katalogazio-hizkuntza zuzen adieraztea \$b azpieremuan, bertan ezarritako balioak erabakiko baitu lotura bidez bistaratzeko testuen hizkuntza.

Adibidea:

MARC bistaratzea:

T040 ## \$aO1000 \$bbaq \$cELS

T245 00 \$aPlaneta jakintza arloka

ISBD bistaratzea:

Planeta jakintza arloka. -- [Barcelona] : Planeta, L.G. 2003

11 libk. : ir. ; 29 cm + 4 DVD

L.G. NA 913-2003

ISBN 84-395-8145-9

Entziklopediak

Enciclopedias

O1000 baq ELS

§c – Zentro transkribatzailea

Erregistroa ordenagailuz irakurtzeko moduan transkribatu zuen erakundearen izena edo MARC kodea. Katalogatutako erregistro berriak identifikatu ahal izateko, Liburutegi Zerbitzuak ezarritako ildoetara jarraikiz, §c azpieremuan ELS idatziko dugu.

Adibidea:

T040 ## \$aB0116 \$bbaq \$cELS

[Getxoko Liburutegiak euskaraz katalogatutako erregistroa, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak ezarritako prozeduraren arabera balioztatua]


§d – Zentro aldatzailea

Erregistroa aldatu eta baliozkotu zuen zentroaren MARC kodea. ELS kodea erabiliko da.

Adibidea:

T040 ## \$aB0116 \$bbaq \$cB0116 \$dELS

Getxoko Liburutegiak euskaraz katalogatu eta transkribatutako erregistroa, eta EIPSeko liburutegiren batek balioztatua

Azpieremu bakoitzak aurrez definitutako katalogazio-taula bat du. "Katalogatzeko laguntza" botoia sakatuta, aukera posibleak ikusiko ditugu 

LABURPENA

Datu-basean erregistro **berrientzat** → Katalogoan lan berri bat sartzen dugunean.

- \$a** Katalogatzen ari den liburutegia
- \$b** Katalogatzeko hizkuntza
- \$c** ELS

Adibidea:

T040 ## \$aA0013 \$bbaq \$cELS

Erregistro bat **aldatzen** dugunean → Aukera ezberdinak eman daitezke:

- **Eguno** erregistroak – ELS duten berriki katalogatutako erregistroak, baina aldatu behar ditugunak.
T040an ez dugu ezer aldatuko ezta gehituko.

Adibidea:

T040 ## \$aG0251 \$bbaq \$cELS

Lezoko liburutegiak katalogatutako erregistroa; ez dugu ezer gehitzen

- Erregistro zaharrak – katalogoen fusioaren aurretikoak, soilik \$a eremuan dituzte datuak.
 - \$a Lana katalogatu duen lehendabiziko liburutegia
 - \$b Katalogatzeko hizkuntza
 - \$c Lana katalogatu duen lehendabiziko liburutegia
 - \$d ELS

Adibidea:

Katalogoen fusioaren aurretiko erregistroa. Soilik \$a-n ditu datuak

T040 ## \$aO1000

Lege Gordailuak katalogatutako erregistroa; aldatzen dugu eta balidatu Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko prozedurari jarraituz aldatuko eta baliozkotuko dugu

T040 ## \$aO1000 \$bbaq \$cO1000 \$dELS

Eskuraketak modulutik ekarritako erregistroetarako → Eskuraketen (ADQT) datu-basean aurrez katalogatutako dagoen erregistro bat CATA datu-basera pasatzen dugunean, aurrez katalogatu duen liburutegiaren kodea mantenduko dugu \$a.y \$c azpieremuetan, eta \$d-n ELS jarriko dugu.

- \$a Lana katalogatu duen lehendabiziko liburutegia
- \$b Katalogatzeko hizkuntza
- \$c Lana katalogatu duen lehendabiziko liburutegia
- \$d ELS

T041 HIZKUNTZA KODEA (EE)

Dokumentuarekin lotutako MARC hizkuntza-kodeak jasotzen ditu, erregistroaren **008/35-37** eremuko hizkuntza-kodea nahikoa ez denean informazio guztia jakinarazteko.

Kode horien iturria arau hau da: *ISO 639-1 – Codes for the representation of names of languages.*

Adierazleak

	# Ez dago informaziorik
Lehenengoa	0 Dokumentua ez da itzulpena eta ez du itzulpenik jasotzen. Atxikitako materiala ez da kontuan hartuko dokumentua itzulpena den ala ez erabakitzeko. 1 Dokumentua itzulpena da edo itzulpen bat jasotzen du. Idazlana jatorrizko hizkuntzan argitaratuta dagoen kontuan hartu gabe erabiliko da. Edonola ere, itzulitako idazlanak ez badu jatorrizkoaren sarrera bera –adibidez, itzulpenaz gain egokitzapena ere badelako–, dokumentua ez da itzulpentzat hartuko eta lehenengo adierazlea 0 izango da.
Bigarrena	# Hizkuntzaren MARC kodea

Azpieremu-kodeak

- \$a Testuaren hizkuntza-kodea (E)**
- \$b Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea (E)**
- \$h Jatorrizko hizkuntza-kodea (E)**

Eremua honako baldintza hauetakoren bat edo batzuk betetzen direnean erabiliko da:

- Dokumentua hizkuntza batean baino gehiagotan badago; hizkuntzetako bat zeinu-hizkuntza izan daiteke.
- Dokumentua bera itzulpena bada edota itzulpenen bat badauka.
- Aurkibideen, laburpenen edo atxikitako materialen hizkuntza ez bada dokumentu nagusiaren hizkuntza bera.
- Edukien aurkibidearen hizkuntza ez bada dokumentu nagusiaren hizkuntza bera.

Hizkuntza-kode guztiak karaktere alfabetikoz jarriko dira, minuskulaz.

ETIKETA HORI BETETZEN DEN GUZTIETAN, OHAR BATEAN (T546, T594...) ADIERAZI BEHARKO DA.

§a - Testuaren hizkuntza-kodea

§a azpieremuko lehenengo hizkuntza-kodea **T008/35-37** eremuan ere kodetu behar da, non eta **T008/35-37** eremuak zuriunerik (###) ez duen.

Idazlan eleaniztunetan, testuaren hizkuntza-kodeak testuan duten nabarmentasunaren arabera kodetzen dira. Hizkuntzen artean nabarmentzen denik ez badago, kodeak hurrenkera alfabetikoz kodetuko dira. Arrazoi praktikoengatik, sei hizkuntza baino gehiago baldin badaude, izenburuaren kodea (edo lehenengo izenburuarena, bat baino gehiago badago) eta **mul** kodea (hizkuntza anitz) kodetuko dira.

§b - Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea

Aurkibideen hizkuntza-kodeak jasotzen ditu, betiere, testuan erabilitako bera ez bada. Hurrenkera alfabetikoan kodifikatuko dira.

§h- Jatorrizko hizkuntza-kodea

Idazlanaren jatorrizko hizkuntzaren eta/edo tarteko itzulpenen hizkuntza-kodeak. Tarteko itzulpenen kodeak jatorrizkoaren kodeen aurretik kodetzen dira.

Adibidea:

T008/35-37 eng

T041 0# \$aeng \$bfre \$bger \$bspa

(Testua ingelesez dago, eta laburpenak ditu frantsesez, alemanez eta gaztelaniaz)

T008/35-37 baq

T041 1# \$abaq \$aspa


(Testua euskaraz eta gaztelaniaz dago)

T041 1# \$aeng \$hfre

(Testua ingelesez dago, eta frantsesezko itzulpena da)

T041 1# \$aspa \$heng \$hchi

(Testua gaztelaniara egindako itzulpen bat da, jatorriz txineraz argitaratutako ingelesezko testu batena)

Azpieremu bakoitzak aurrez definitutako katalogazio-taula bat du. "Katalogatzeko laguntza" botoia sakatuta, aukera posibleak ikusiko ditugu 

T080 – SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALAREN ZENBAKIA (E)

Eremu honetan Sailkapen Hamartar Unibertsalaren (SHU) notazio bat jasotzen da. SHUren bigarren edizioa erabili beharko da, sailkapen-irizpideak homogeneousatzeko.

Haurrentzako liburuak sailkatzeko, ikus dokumentu hau: **Haurrentzako liburuen sailkapen-taula, EIPSeko liburutegietarako.**

Adierazleak

Lehenengoa

0 Osoa. Zenbakia edizio oso batetik hartu da.

1 Laburtua. Zenbakia edizio laburtu batetik hartu da. (Lehenetsita)

Bigarrena

Zehaztugabea

Azpieremu-kodeak

§a **Sailkapen Hamartar Unibertsalaren zenbakia (EE)**

§a - Sailkapen Hamartar Unibertsalaren Zenbakia

Ez da aldatuko notazio erlazionatuen hurrenkera.

Adibidea:

T080 1# §a94(460.15)

T080 1# §a331.108.62:669.1

(Ez: §a331.108.62:669.1
§a669.1:331.108.62)

Notazioaren ordenaren inguruko zalantzak izanez gero, kontsultatu SHUren «Sarrera» ataleko 3. irudia.

Notazioetan letrak daudenean (hirien, idazleen izenak, etab.) zuriunerik gabe transkribatuko dira, zenbakien ostean.

Adibidea:

T080 1# §a811.361'282(460.154Eibar)

(Ez:
§a811.361'282(460.154 Eibar)

XXI. mendean idatzitako literatura-obren denbora-osagarriaren kasuan, Espainiako Liburutegi Nazionalaren ereduari jarraituko diogu, eta egilea urte gehien bizi izan den mendea kontuan hartuko dugu. Hala, XXI. mendearen lehenengo urteetan argitaratutako narrazio-lan gehienek "19" izango dute denbora-osagarri gisa, nahiz eta idazle gazteek idatzitakoak izan.

Adibidea:

T080 1# \$a821.361-31"19"
T100 1# \$aElorriaga, Unai (\$d1973-)
T245 13 \$aUn tranvía en SP

Ordenagailuz irakurtzeko moduko dokumentuen kasuan, forma-osagarri espezifikoa (0.034) erabiliko dugu beti.

Adibidea:


T080 1# \$a502.4(0.034)
T080 1# \$a94(460.15)(0.034)

Euskadi, Nafarroa eta Iparralde barne hartzen dituen mugaketa geografikorako, leku-osagarri hauxe erabiliko dugu:

Adibidea:

Euskal-Herria
(460.15/16+447.9)

Eremu hori betetzeko laguntza lortzeko aukera dago, "SHU atzitzea" botoia sakatuta



T084 BESTE SAILKAPEN ZENBAKI BAT (E)

Gainerako eremuek barne hartzen ez duten eskema batetik hartutako sailkapen-zenbakia.

Adierazleak

Lehenengoa # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremu-kodeak

§a *Sailkapen-zenbakia (E)*

§a – Sailkapen-zenbakia

Eremu horretan liburutegi batzuen sailkapen bereziak jasoko ditugu, esaterako:

- Haurrentzako sekziarako Donostiako liburutegi publikoek egindako sailkapena. Haur eta gazteentzako fikziozko literatura-idazlanetarako erabiltzen den sailkapena.
(Ikus "*Haurrentzako liburuen sailkapen-taula*")

Adibidea:

T084 ## §a82-35

- HABEren sailkapen berezia, material didaktiko eta hizkuntzalaritza aplikaturako.

Adibidea:

T084 ## §aB30

T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA IZENA (EE)

Bibliografia-erregistro batean, sarrera nagusi gisa erabilitako pertsona-izena. Oro har, erantzule nagusia.

Katalogazio Arauek ezarritakoaren arabera idatziko da.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

(Ik. autoritateak)

Adierazleak

Lehenengoa	0 Izena 1 Abizenak 3 Familia-izena
Bigarrena	# Zehaztugabea

Ikus "Autoritateak", azpieremuei buruzko informazioa lortzeko.

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratuko da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

Adibidea:

- T100 1# \$aHernández, Miguel (\$d1910-1942)**
- T100 0# \$algnazio Loiolakoa, \$cSantua (\$d1491-1556)**
- T100 0# \$aVecino hijo de Toledo, Un**
- T100 0# \$aDieguito, \$cel Cigala (\$d1968-)**
- T100 0# \$aPeñaflorida, Joaquín Mendizabal Gortazar, \$cConde de (\$d1886-1954)**

Autoritate elebiduna T900 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Pertsona-izena (elebiduna)).

Adibidea:

- T100 0# \$algnazio Loiolakoa, \$cSantua (\$d1491-1556)**
- T900 0# \$algnacio de Loyola, \$cSanto (\$d1886-1954)**

T110 SARRERA NAGUSIA – ERAKUNDE KORPORATIBOAREN IZENA (EE)

Bibliografia-erregistro batean, sarrera nagusi gisa erabilitako erakunde korporatiboaren izena.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

(Ik. autoritateak)

Adierazleak

	0 Izena alderantzizko hurrenkeran
Lehenengoa	1 Jurisdikzio-izena
	2 Izena hurrenkera zuzenean
Bigarrena	# Zehaztugabea

Ikus "Autoritateak", azpieremuei buruzko informazioa lortzeko.

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratuko da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

Adibidea:

T110 2# \$aAsociación de Licenciados de Ciencias Económicas por la Universidad Comercial de Deusto

T110 2# \$aEuzko Ikastola Batza

T110 2# \$aANABAD. **\$b**Congreso (**\$n**4º. **\$d**1988. **\$c**A Coruña)

T110 1# \$aGasteiz. **\$b**Udala

T110 2# \$aEuskal Herriko Unibertsitatea. **\$b**Uda Ikastaroak (**\$n**30.a. **\$d**2011. **\$c**Donostia)

Autoritate elebiduna T901 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Erakunde korporatiboaren izena (elebiduna)).

Adibidea:

T110 2# \$aBaserritarren Kutxa

T901 2# \$aCaja Rural Vasca

T111 SARRERA NAGUSIA – BILTZARRAREN IZENA (EE)

Bibliografia-erregistro batean, sarrera nagusi gisa erabilitako biltzar edo hitzaldi baten izena.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

(Ik. autoritateak)

Adierazleak

Lehenengoa	0 Izena alderantzizko hurrenkeran 2 Izena hurrenkera zuzenean
Bigarrena	# Zehaztugabea

Ikus "Autoritateak", azpieremuei buruzko informazioa lortzeko.

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratuko da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

Adibideak:

T111 2# \$aCongreso Estatal de la Abogacía Joven (**\$n**13^a. **\$d**2004. **\$c**San Sebastián)
T111 2# \$aNazioarteko Txotxongilo Jaialdia (**\$n**25.a. **\$d**2007. **\$c**Tolosa)

Autoritate elebiduna T902 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Biltzarraren izena (elebiduna)).

Adibidea:

T110 2# \$aAisiazko Munduko Biltzarra (**\$n**6.a**\$c**Bilbo)
T902 2# \$aCongreso Mundial de Ocio (**\$n**6^o**\$c**Bilbao)

T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE)

Bibliografia-erregistro batean, sarrera nagusi gisa erabilitako izenburu hautatua. Izenburu hautatua erabiltzen da idazlan bat izenburuarekin zuzenean hasten denean, eta, gainera, izenburu bat baino gehiagorekin argitaratu denean. Kasu horretan, idazlana adieraziko duen izenburu jakin bat aukeratu behar da.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

Izenburu hautatua duten idazlan anonimoetan erabiltzen da, klasiko anonimoetan, Biblian eta izenburu orokor batez ezagutzen diren tratatu, hitzarmen, akordio eta abarretan.

(Ik. *autoritateak*)

Adierazleak

Lehenengoa	0 – 9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereak. Artikulu zehaztu edo zehaztugabe bati lotuta dauden izenburu baten hasierako karaktereen kopurua, zeinak indexatzeko eta alfabetizatzekeo prozesuetan kontuan hartzen ez baitira (adb.: El, The, Der), eta zeinu diakritiko edota karaktere berezi guztiak (ç, i, [).
Bigarrena	# Zehaztugabea

Ikus "Autoritateak", azpieremuei buruzko informazioa lortzeko.

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratu da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

Adibidea:

T130 0# \$aBiblia. \$pN.T. \$pEvangelios. \$IEspañol
T130 0# \$aBiblia. \$pl.B. \$IEuskara
T130 0# \$aKorana. \$IEuskara
T130 0# \$aTratado de la Unión Europea (\$d1992)
T130 3# \$aLa Chanson de Roland. \$IEspañol

Autoritate elebiduna T903 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Izenburu hautatuaren izena (elebiduna)).

Adibidea:

T130 0# \$aBiblia. \$pA.T.
T903 0# \$aBiblia. \$pl.Z.

T240 IZENBURU HAUTATUA (EE)

Idazlan baten izenburu hautatua sortuko da deskribapen bibliografikoaren sarrera nagusiak pertsona, erakunde edo biltzar baten izena jasotzen duen eremua duenean.

Izenburu hautatua erabiliko dugu idazlan bat hainbat izenbururekin argitaratu denean eta berau adierazten duen izenburu jakin bat aukeratu behar denean.

Erregistroan 130 eremua dagoenean ez da 240 eremua erabiliko.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

(Ik. autoritateak)

Adierazleak

Lehenengoa	0 Ez da inprimatzen, ez bistaratzen
	1 Inprimatzen edo bistaratzen da
Bigarrena	0-9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua

Azpieremu-kodeak

§a	Izenburu hautatua (EE)
§l	Idazlanaren hizkuntza (EE)

Ikus "Autoritateak", azpieremuei buruzko informazioa lortzeko.

T240 Izenburu hautatua kasu hauetan idatziko da:

- Nahitaezkoa da lege, tratatu (betiere izenburu hautatu orokor izun baten izenburu hautatua ez bada) eta liturgia-liburuen kasuan.
- Literatura-lan klasikoak (XIX. mendekoak eta lehenagokoak; hala ere, klasikotzat jotzen den XX. mendeko idazlanen bat ere sar daiteke).
- Beste hizkuntza batera itzulitako euskal idazlanen literatura-izenburuak, esaterako, "Obabakoak" ingelesez.
- Ez da **T240** eremurik sortuko gaiei buruzko idazlanetarako.

Izenburu hautatua erabiltzen badugu, ez da jasoko jatorrizko izenburuari buruzko oharra. Izenburu hautatua nahitaez erabili behar ez den obren kasuan, jatorrizko izenburua **T594** eremuan jaso beharko dugu, betiere informazio-iturrian agertzen bada.

Adibideak:
<p>T100 1# \$aCervantes Saavedra, Miguel de (\$d1547-1616) T240 10 \$aDon Quijote de la Mancha T245 13 \$aEl ingenioso hidalgo don Quixote de la Mancha / \$ccompuesto por Miguel de Cervantes Saavedra</p> <p>T100 1# \$aStevenson, Robert Louis (\$d1850-1894) T240 14 \$aThe strange case of Dr. Jekyll and Mr. Hyde. \$lEspañol T245 10 \$aDr. Jekyll y Mr. Hyde T100 1# \$aRuiz, Samuel T245 10 \$aCómo me convirtieron los indígenas T594 ## \$aTít. orig.: Comment les Indiens m'ont converti</p> <p>T100 1# \$aAtxaga, Bernardo (\$d1951-) T240 10 \$aObabakoak. \$lFinlandiera</p> <p>T110 1# \$aEspaña T240 10 \$aConstitución, 1978 T245 10 \$aConstitución española</p>

16.1.1 Katalogazio Arauaren arabera: "... izenburu hautatua ez da beharrezkoa izenburua bera horrekin bat badator". Hala ere, geuk T240 erabiliko dugu, eremu horrek hiperestekak sortzen eta informazioa berreskuratzea optimizatzen baititu.

<p>T100 1# \$aQuevedo, Francisco de (\$d1580-1645) T240 10 \$aHistoria de la vida del Buscón T245 10 \$aHistoria de la vida del Buscón / \$cFrancisco de Quevedo</p>

Autoritate elebiduna T940 eremuan adieraziko da (Izenburu hautatua (elebiduna)).

Adibidea:
<p>T240 10 \$aConstitución, 1978. \$lEuskera-Español T940 0# \$aKonstituzioa, 1978. \$lEuskara-Gaztelania</p>

T243 IZENBURU HAUTATU OROKORRA (EE)

Katalogatzaileak sortzen duen izenburu generikoa, egile emankor baten idazlanak biltzeko.

Eremu hori autoritate bati lotuta dago

(Ik. autoritateak)

Adierazleak

Lehenengoa	0 Ez da inprimatzen, ez bistaratzen 1 Inprimatzen edo bistaratzen da
Bigarrena	0-9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua

Azpieremu-kodeak

\$a	Izenburu hautatua (EE)
\$d	Tratatu baten izenpetze-data (E)
\$f	Idazlanaren data (EE)
\$k	Formaren azpisarrera (E)
\$l	Idazlanaren hizkuntza (EE)
\$n	Idazlanaren zati edo atalaren zenbakia (E)
\$p	Idazlanaren zati edo atalaren izena (E)

Autoritate elebiduna T941 eremuan adieraziko da (izenburu hautatu orokorra (elebiduna)).

Honako kasu hauetan erabiliko da:

Literatura-idazlanak

1. Idazlan osoak

“Obras” edo “Idazlanak” izenburu hautatu orokorra erabiltzen da argitalpenak egile baten obra guztiak jasotzen dituen edota halaxe aurkezten direnean.

Adibidea:

T100 1# \$aCervantes Saavedra, Miguel de (**\$d**1547-1616)

T243 10 \$aObras. **\$l**Italiano

T245 10 \$aTutte le opere

T941 0# \$aIdazlanak. **\$l**Italiera

2. Idazlan hautatuak

"Obra selecta" edo "Idazlan hautatuak" erabiliko da dokumentuak egile beraren hiru obra edo gehiago jasotzen dituenean.

Adibidea:
T100 1# \$a Cervantes Saavedra, Miguel de (\$d 1547-1616)
T243 10 \$a Obra selecta. \$l Inglés
T245 14 \$a The selected works
T941 0# \$a Idazlan hautatuak. \$l Ingelesa

3. Literatura-generoa

Hainbat literatura-genero landu dituen egile baten idazlan-bildumen kasuan, generoari dagokiona erabiliko da izenburu hautatu orokor izun gisa.

Adibidea:
T100 1# \$a Vega, Lope de (\$d 1562-1635)
T243 10 \$a Poesía
T245 10 \$a Obras poéticas
T941 0# \$a Poesia
T100 1# \$a Valle Inclán, Ramón María del (\$d 1866-1936)
T243 10 \$a Teatro. \$k Selección
T245 10 \$a Romance de lobos ; \$b Divinas palabras ; Luces de Bohemia
T941 0# \$a Antzerkia. \$k Hautaketa
T100 0# \$a Loramendi (\$d 1907-1933)
T243 10 \$a Poesia. \$k Hautaketa
T245 10 \$a Olerki hautatuak / \$c Joakin Arana Ezpeleta, Loramendi
T941 0# \$a Poesía. \$k Selección

4. Itzulpenak

Jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean dauden egile baten idazlan-bildumen kasuan, hizkuntzaren izena gehituko zaio izenburu hautatuari.

Adibidea:
T100 1# \$a Goethe, Johann Wolfgang von (\$d 1749-1832)
T243 10 \$a Teatro. \$l Español. \$k Selección
T245 10 \$a Teatro selecto
T941 0# \$a Antzerkia. \$l Gaztelania. \$k Hautaketa

5. Antologiak

Egile beraren literatura-idazlan bat edo gehiagoren zatien bildumen kasuan, dagokion izenburu hautatuari eta hizkuntzaren adierazleari “**Antología**” edo “**Antologia**” hitza gehituko zaie.

Adibidea:

T100 1# \$aCervantes Saavedra, Miguel de (**\$d**1547-1616)
T243 10 \$aDon Quijote de la Mancha. **\$l**Inglés. **\$k**Antología
T245 10 \$aDon Quijote : **\$b**antology
T941 0# \$aDon Quijote de la Mancha. **\$l**Ingelesa. **\$k**Antologia

Legeria modernoa

Lege-xedapenen bildumen kasuan, izenburu hautatua “**Leyes, etc.**” edo “**Legeak, etab.**” izango da. Lege-bilduma monografikoak badira, izenburu hautatuak horien gaia jasoko du.

Adibidea:

T110 1# \$aEuskadi
T243 10 \$aLegeak, etab.
T245 10 \$aEuskal Herriko Autonomia-Elkartearen Legegintza-Bilduma = **\$b**Recopilación legislativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco
T941 0# \$aLeyes, etc.

T110 1# \$aEspaña
T243 10 \$aLeyes, etc., de arrendamientos urbanos
T245 10 \$aArrendamientos urbanos y legislación complementaria / **\$c**edición y prólogo de Carlos Lasarte Álvarez en colaboración con Antonio Moreno Andrade
T941 0# \$aLegeak, etab., hiri errentamenduari buruz

Nazioarteko itunak

1. Bi aldeko izenpetutako tratatuak

Bi aldeko izenpetutako tratatu baten edo tratatu, hitzarmen eta abarren bilduma baten kasuan, izenburu hautatu orokor gisa “**Tratados, etc.**” edo “**Tratatuak, etab.**” erabiliko da, eta ostean, beste aldearen izena. Tratatura, hitzarmena eta abar bakarria denean, urtea ere gehituko da.

Adibidea:

T110 10 \$aEspaña
T243 10 \$aTratados, etc. **\$g**Francia
T245 10 \$aColección de tratados entre España y Francia
T941 0# \$aTratatuak, etab. **\$g**Frantzia

2. *Bi aldek baino gehiagok izenpetutako tratatuak*

Bi aldek baino gehiagok izenpetutako tratatu, hitzarmen eta abarren kasuan, aldeetako batek guztiak izenpetu dituzenean, izenburu hautatu gisa **“Tratados, etc.”** edo **“Tratatuak, etab.”** erabiliko da.

Hiru aldek izenpetutako tratatu, hitzarmen eta abarren kasuan ere, izenburu hautatua erabiliko da, eta ostean data jarriko da.

Adibidea:

T110 10 \$aEspaña

T243 10 \$aTratados, etc.

T245 10 \$aConvenios de colaboración de España con Venezuela, México y Chile
/\$c[trabajo realizado por Hugo Lesca]

T941 0# \$aTratatuak, etab.

T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE)

Idazlan baten izenburuari eta deskribapen bibliografikoaren erantzukizunaren aipuari buruzko oharra. Eremuan izenburua bera jasotzen da. Halaber, materialaren izendapen orokorra, izenburuaren gainerakoak, izenburuari buruzko informazio osagarria eta erantzukizunaren aipua ere jaso daitezke.

Adierazleak

Lehenengoa	0 <i>Ez dago sarrera gehigarririk</i>
	1 <i>Sarrera gehigarria dago</i>
Bigarrena	0-9 <i>Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua</i>

Azpieremu-kodeak

\$a	<i>Izenburua (EE)</i>
\$b	<i>Izenburuaren gainerakoak (EE)</i>
\$c	<i>Erantzukizunaren aipua (EE)</i>
\$h	<i>Material-mota (EE)</i>
\$n	<i>Idazlanaren zati edo atalaren zenbakia (E)</i>
\$p	<i>Idazlanaren zati edo atalaren izena (E)</i>

Izenburua bera transkribatzeko orduan, arau orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Izenburuaren hasieran dauden artikulua –zehaztuak zein zehaztugabeak– ez dira kontuan hartzen alfabetoaren arabera ordenatzeko.
- Izenburua sarrera nagusia denean, alfabetoaren arabera ordenatzen den lehenengo hitza minuskulaz jarriko da, akats ortografikorik gertatzen ez bada.
- Izenburua zenbaki batez hasten denean, **T246** etiketan transkripzio alfabetikoa jaso beharko da.

Adibidea:

T245 10 \$a100 metros

T246 1# \$aCien metros

- Artikulu batez hasten ez diren izenburuen hasieran dauden diakritikoak edo karaktere bereziak, esaterako, [ç, ñ, “, ¡, etab.], ageri diren bezala transkribatuko dira, hiru puntuak (...) izan ezik, honela transkribatuko baitira: __ (**2 azpimarra, zuriunerik gabe**). Karaktere horiek EZ dira kontuan hartuko ALFABETOAREN arabera ordenatzeko.

Adibidea:

T245 12 \$a __Julia dinotsut
[Jatorrizko izenburua "...Julia dinotsut" da]

- Informazioa bilatzea eta berreskuratzea errazteko, izenburu edota erantzukizunaren aipu batean inzialak badaude, puntuen bidez bereizita, inzialen artean zuriune bat utziko dugu (AUTOn egiten den bezala).

Inizialek punturik gabeko akronimo bat osatzen badute, inzial horiek ez ditugu zuriunez bananduko.

Adibidea:

T245 10 \$aCincuenta sombras de Grey / **\$c**E. L. James ; traducción de Pilar de la Peña Minguell y Helena Trías Bello
T245 10 \$aNBA confidencial / **\$c**Juan Francisco Escudero

\$a – Izenburua

Izenburua bera da, kenduta zenbakia edota zatiaren izenburua, eta edozein izenburu alternatibo. Lehen ISBD puntuazio-zeinura arte azaltzen den informazio guztia jasotzen du.

Kasurik ohikoenak:

- Behekoz gorako baliabideen kasuan, izenburu biak agertuko dira T245ean. **Izenburu gisa aukeratzen ez den izenburua pareko izenburu gisa hartuko da.** (ISBD *konsolidatuan* ezarrita dagoen bezalaxe)

Adibidea:

T245 00 \$aEuskal Autonomia Erkidegoko Azterna Ekologikoa = **\$b**Huella ecológica de la Comunidad Autónoma del País Vasco
T246 11 \$aHuella ecológica de la Comunidad Autónoma del País Vasco

- Egilearen izena edo beste erantzukizunaren aipu bat izenburuaren zati bereizezina badira, iturriaren asmoa errespetatuko da, eta **\$a** azpieremuan transkribatuko da.

Adibidea:

T245 10 \$aCuentos de Perrault

- Izenburu alternatiboak, oro har juntagailu disjuntibo batez bereizita daudenak, **\$a** azpieremuan jasoko dira juntagailuarekin batera, baina bigarren izenburuaren lehenengo hitza maiuskulaz hasiko da.

Adibidea:

T245 10 \$aLucio o El asno
T246 10 \$aAsno

- Egile berberaren hainbat izenburu baldin badaude, lehenengoa **\$a** azpierenmuaren transkribatuko da, eta gainerakoak, **\$b** azpierenmuaren atzetik, aurretik zuriune bat utzita eta puntu eta koma jarrita (;). **\$b** azpierenmu bakarria egongo da. Gainerako izenburuen bigarren mailako sarrerak idatziko dira, behar besteko **T740** eremutan.

Adibideak:

T245 10 \$aMuertes de perro ;**\$b**El fondo del vaso / **\$c**Francisco Ayala
T740 32 \$aEl fondo del vaso

T245 10 \$aTom Sawyer ;**\$b**y Huckleberry Finn/ **\$c**Mark Twain
T740 02 \$aHuckleberry Finn

- Egile desberdinetako izenburuak baldin badaude, lehenengoaren erantzukizunaren aipua ostean puntu bat idatziko dugu, eta bigarren eta hurrengo izenburuak dagozkien aipuetatik bereizteko, barra erabiliko da.

Adibidea:

T245 10 \$aPoemas / **\$c**Catulo. Elegías / Tíbulo
T740 02 \$aElegías

- Izenburu orokorra duten obren kasuan, mendeko izenburuak **T505 (edukiari buruzko oharra)** eremuan jasoko dira.

Adibidea:

T245 00 \$aTeatro portugués contemporáneo
T505 00 \$tEl loco y la muerte / **\$r**Raúl Brandao. **\$t**Jacob y el ángel / **\$r**José Regio. **\$t**Rouge / **\$r**Alfredo Cortez.

■ \$h - Material-mota

Material-mota adierazten duen terminoa. Kortxeteen artean idazten da. **\$h** azpierenmu bakarrik kasu hauetan erabiliko dugu:

- Euskarri elektronikoan dauden monografiak
[Recurso electrónico] edo [Baliabide elektronikoa] terminoa erabiliko dugu
- Mikrofitxa edo mikrofilma euskarrian dauden monografiak

[Microforma] edo [Mikroforma] terminoa erabiliko dugu

Izenburuaren beraren (**\$a**, **\$n**, **\$p**) ostean transkribatzen da beti, eta izenburuaren gainerakoen (**\$b**) aurretik doa. Kasu horretan, **\$b \$h** baten ostean badoa, **\$bren** puntuazioa ez da aurretik jarriko (“:” “=” “;” **\$bren** ostean jarriko dira beti).

ISBD kontsolidatuan ezartzen den bezalaxe, izendatzailea maiuskulaz hasiko da.

Adibidea:
T245 13 \$a La biblioteca pública [\$hRecurso electrónico] \$b : portal de la sociedad de la información
T245 00 \$a Euskal Artearen irudiak [\$hBaliabide elektronikoa] \$b = Imágenes del arte vasco / \$czuzendaritza Enrique Ayerbe Echebarria
T245 12 \$a La producción cinematográfica en el País Vasco [\$hMicroforma] \$b : desde Ama Lur (1968) hasta nuestros días / \$c Carlos Roldán Larreta

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
Recurso electrónico	Baliabide elektronikoa
Microforma	Mikroforma

Azpieremu horrek aurrez definitutako katalogazio-taula bat du. "Katalogatzeko laguntza" botoia sakatuta, aukera posibleak ikusiko ditugu.



\$b – Izenburuaren gainerakoak

\$b azpieremuak izenburuaren gainerakoak jasotzen ditu, hurrengoak: azpiizenburua, pareko izenburua, lehenengoaren osteko izenburuak (izenburu orokorrik gabeko idazlanetan). **\$b** azpieremua ezin da errepikatu; beraz, beharrezkoa balitz, dagokion zeinua errepikatuko da. Era berean, **\$b** azpieremuaren aurretik doazen puntuazio-zeinuak **katalogatzaileak bete** beharko ditu, desberdinak izan baitaitezke (; :=).

Izenburu izuna

Informazio-iturrietan adierazita ez datorren azalpena behar duten izenburuen kasuan, izenburu izuna erabiliko da. Izenburu izun hori kortxeteen artean transkribatuko da beti, dokumentuaren hizkuntzan, eta izenburutik beratik bereizita egongo da bi punturen bidez (:); **\$b** azpieremuaren ostean jarriko da.

Adibidea:
T245 00 \$a allargiak : \$b[erakusketa]

T245 00 \$aMiradas de agua : **\$b[exposición]**
T245 14 \$aThe intimate subversion : **\$b[exhibition]** /**\$c**Ángel Marcos

Azpiizenburua eta pareko izenburua

Azpiizenburua beti minuskulaz hasiko da, salbu eta izen bereziak direnean.

Dokumentuan jasotako pareko izenburu guztiak idatziko dira.

Informazio-iturri nagusian agertzen ez den azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria oharretan transkribatuko da normalean, salbu eta dokumentua identifikatzeko edota deskribapena behar bezala ulertzeko beharrezkotzat jotzen ez bada. (Adibidez: Guipúzcoa : [carreteras]).

Kasurik ohikoenak:

- Hainbat pareko izenburu eta azpiizenburu komuna duten idazlanen kasuan, azpiizenburua amaieran transkribatuko da.

Adibidea:

T245 10 \$aPlano de Palma = **\$b**Plan de Palma : con callejero e información turística

- Hainbat hizkuntzatan ageri diren izenburu eta azpiizenburuak dituzten dokumentuen kasuan, izenburu bakoitza transkribatuko da, eta jarraian, dagokion azpiizenburua eta pareko izenburua.

Adibidea:

T245 00 \$aPeñacerrada-Urizaharra : **\$b**arte e historia en una villa alavesa = Peñacerrada-Urizaharra : artea eta historia Arabako herri batean

- Izenburu komuna eta hainbat hizkuntzatan dauden azpiizenburuak dituzten dokumentuen kasuan, honela transkribatuko dira:

Adibidea:

T245 00 \$aMallorca : **\$b**guía turística = guide touristique = touristic guide

- Hainbat egilerenak diren eta azpiizenburu komuna duten izenburuen kasuan, guztiak ohar batean transkribatuko dira, izenburu orokorra ez bada.

Adibidea:

T245 14 \$aLos sustantivos / **\$c**Agnes Rosentiehl. Los verbos / Jean Louis Martín
T594 ## \$aSubtít.: Gramática fácil para niños

\$c – Erantzukizunaren aipua

Lehenengo erantzukizunaren aipua edota beste azpieremuetan kodetzen ez den eremuaren gainerako informazioa.

Pertsona edota erakundeen izenak informazio-iturri nagusian ageri diren bezala transkribatuko dira. Barraren osteko lehenengo letra minuskulaz jarriko da, akats ortografikorik gertatzen ez bada.

ISBD kontsolidatuan ezarrita dagoen bezalaxe, pertsonen edo erakunde korporatiboen izenak erantzukizunaren aipu bakarrean adierazten direnean, **katalogazio-zentroak erabakiko du transkribatuko diren izenen kopurua**. Katalogazio-maila osoan **gehienez ere sei egile** aipatuko ditugu, **aukeratutako informazio-iturrian agertzen badira**, eta betiere euskaldunak badira.

Gainerako kasuetan, **et al.** laburtzapena kortxeteen artean idatziko da. Ez da parentesirik erabiliko ez kortxeteak bikoiztuko, eta aurretik eta ostean zuriune bat egongo da.

Adibidea:

T245 00 \$aGeografía / **\$c**[Rosa Calvo Esteras ... et al.]

T245 00 \$aIrribarrea zabaltzeko ipuinak / **\$c**Juan Kruz Igerabide ; marrazkiak, Jokin Mitxelena [sic]

Kasurik ohikoenak:

- Pareko izenburuak dituzten eta hizkuntza bakarrean dagoen erantzukizunaren aipua duten idazlanen kasuan, izenburuak dagozkien pareko izenburuekin transkribatuko dira, eta erantzukizunaren aipua amaieran jarriko da.

Adibidea:

T245 14 \$aThe importance of being Ernest = **\$b**La importancia de llamarse Ernest / **\$c**Oscar Wilde

- Hainbat hizkuntzatan dauden izenburuen eta erantzukizunaren aipuen kasuan, izenburu bakoitza bere erantzukizunaren aipuekin erregistratuko da.

Adibidea:

T245 00 \$aAzterketa historikoak / **\$c**Zumalakarregi Museoa = Estudios históricos / Museo Zumalakarregi

- Izenburua hizkuntza bakarrean dagoen eta pareko erantzukizunaren aipuak dituzten dokumentuen kasuan, izenburua jasoko da, eta ostean, pareko erantzukizunaren aipuak.

Adibidea:

T245 10 \$aArrazakeriaren aurkako baliabideen gidaliburua / **\$c**SOS Racismo = SOS Arrazakeria

- Izenburu orokorrik gabeko egile berberaren idazlanen bildumen kasuan, izenburu guztiak transkribatuko dira, (;) bidez bereizita, eta jarraian, erantzukizunaren aipua idatziko da. Bigarren mailako sarrerak egingo dira, bigarren idazlanaren eta hurrengo izenburuekin.

Adibidea:

T245 10 \$aMuertes de perro ; **\$b**El fondo del vaso / **\$c**Francisco Ayala
T740 3# \$aEl fondo del vaso

- Izenburu orokorrik gabeko hainbat egileren idazlanen bildumen kasuan, izenburu bakoitza transkribatuko da, (.) bidez bereizita, eta bakoitzaren ostean, dagokion erantzukizunaren aipua idatziko da. Bigarren mailako sarrerak egingo dira (T740), bigarren idazlanaren eta hurrengo izenburuekin.

Adibidea:

T245 14 \$aLos invictos / **\$c**William Faulkner. Bajo la rueda / Herman Hesse
T700 1# \$aHesse, Herman
T740 02 \$aBajo la rueda

- Erantzukizunaren aipuan hainbat erakunde ageri badira, horietako bat nagusia eta besteak mendekoak, koma (,) bidez bereiziko dira, salbu eta sintaktikoki lotuta badaude.
- Informazio-iturri nagusian adierazita dauden dokumentuaren erakunde babesleak erantzukizunaren aipuetan sartuko dira, baldin eta babeslearen eta dokumentuaren arteko erlazioa esplizituki agertzen bada edota tartekatze labur baten bidez azaldu badaiteke. Hala ez bada, ohar batean idatziko da, betiere seriearen eremuan edota argitalpenaren eremuan aipatu ez bada.

\$n – Idazlanaren zati baten edo atal baten zenbakia

Izenburuan azaltzen den idazlan-zati edo idazlan-atal baten zenbakia jasotzen du. Beti **\$aren** ostean transkribatuko da, aurretik puntu bat (.) jarrita, eta iturrian erabilitako terminologiaren arabera adieraziko da: zatia, eranskina, liburua, eta abar.

Adibidea:

T245 10 \$aGuerra de las Galias. **\$n**Libro V

\$p – Idazlanaren zati baten edo atal baten izena

Izenburuan azaltzen den idazlan-zati edo idazlan-atalaren izena jasotzen du. **\$p** azpieroaren aurretik puntu bat (.) jarriko da beti, **\$a** edo beste **\$p** azpiero baten ostean baldin badator. Aurretik **\$n** badu, puntuazio-zeinua koma (,) izango da.

